

15. ISILPEAN GORDE ALA EZ

(170')

Helburuak:

- Gaiaren gaineko azalpenak ulertzea eta nork bere ikuspuntua azaltzea.
- Zenbait kasu korapilotsutan jokatzeko irizpideak proposatzea eta eztabaidatzea.
- Entzundako azalpenaz baliatuta, galderei erantzutea.

Zertan den:

Unitate honetan ikasleek sekretu profesionalaren eta sigiloaren inguruan jardungo dute. Lehen atalean, sekretu profesionala zein lanbideri aitortu behar zaion eta zergatik aztertu eta eztabaidatuko dute. Baita hiru kasu praktikoren inguruan beren iritzia emango ere. Bigarren atalean, berriz, legeak zer aurreikusten duen ezagutuko dute. Hirugarrenean, azkenik, kasu jakin baten ingurutik abiatuta, eztabaidatuko dute zein ote den jokabide egokia eta zergatik. Eztabaida beste kasu eta egoeretara zabalduko dugu eta ondorioak irizpide-zerrenda batean jasoko dira.

Prozedura

1

Zergatik ote?

Atazaurrea: zeinek duten lanbide isilekotasuna gorde beharra eta zeinek ez erabaki (15')

- Ikasleek liburuan duten lanbide zerrenda aztertu behar dute, beraien ustez, ikusi eta entzundakoa isilpean gordetzeko betebeharra dutenak eta eskubidea dutenak erabakitzeko.

Zuzenketa-orria

Jokabide etikoari begira, gordetzeko betebeharra dutenak	Legea kontuan izanda, gordetzeko eskubidea dutenak
<ul style="list-style-type: none">• Aholkulari fiskala• Psikologoa• Administrazio orokorreko langileak	<ul style="list-style-type: none">• Medikua• Abokatua• Kazetaria• Apaiza
Hainbat gauza isilpean gorde beharko lituzkete, baina, berez, lege-hausterik egin ezean, ez dute zertan hala egin	
<ul style="list-style-type: none">• Albaitaria• Enpresa bateko gerentea• Irakaslea• Etxeko langileak• Goi kargu baten idazkaria	

- Beren ikuspegiak azaldu eta gaiari buruz duten informazioa eta esperientziak azalduko dituzte, liburuko galderak oinarri hartuta:

Ikaslearen liburua

- Baduzu gorde beharrik edo gordetzeko eskubiderik zure lanean?
- Zer gorde behar duzu? Zergatik?
- Ezagutzen al duzu zure inguruan horrelakorik?
- Zer iruditzen zaizu hainbat ogibidetan betebeharrak edo eskubide hori izatea?

Ataza: zenbait lanbideri sekretua aitortzeko arrazoiak eztabaidatu (15')

- Taldeka jarrita, ikasleek eztabaidatuko dute zein ote diren legelari (abokatu eta prokuradoreak), mediku, apaiz eta kazetariei lanbideko sekretua aitortzeko arrazoiak.
- Jarraian, magistratu baten azalpena¹ (CDaren 16. pista) entzungo dute eta lehen egindako hipotesiak egiaztatuko dituzte.

Feedbacka: adostasun eta ezadostasun puntuak identifikatu (10')

- Taldeetan eztabaidatutakoaren laburpena aurkeztuko dute ikastaldearen aurrean, baita beren hipotesiak noraino bete diren ere.

Zuzenketa-orria

- Lege nagusian (gerora salbuespen asko dituen), oro har, bete beharrekoa hau da: edozein pertsonak, epaiketa batean lekuko bada, epailearen galdera guztiei erantzun behar die.
- Lekukoak deklaratu egin behar du eta egia esan beharra dauka.
- Sekretu profesionala zenbait profesiori dagokio. Profesio horiei sekretu profesionala aitortuko ez balitzaie, bezeroek errezelo gehiago izango lituzkete kasuaren gorabeherak azaldu eta argitzeko. Hori da legeak babestu nahi duen zerbait.

Atazaostea: hiru kasu aztertu eta eztabaidatu. (15')

- Ikasleak hiru taldetan banatuko dira. Taldeetako bakoitzean liburuan duten kasu baten ardura hartuko dute. Kasu horri lotuta gertatutakoa zilegi den edo ez eztabaidatu beharko dute.
- Taldeak berrantolatu egingo dituzte eta elkarri emango diote erabakitakoaren berri. Iritziak trukatzeko aukera izango dute.

Ikaslearen liburua

A KASUA

Harrapatu berri dute lagun bat, ustez, bi neska akabatu dituelakoan. Ez du abokaturik izendatu eta han agertu zaio abokatu-kazetari bat bere zerbitzuak eskaintzeko. Atxilotuak onartu du eskaintza eta aitortu dizkio abokatuari kasuaren gorabehera guztiak. Honek kazetaria ere badela esan eta hurrengo egunean prentsan eman du argitara guztia.

B KASUA

Gizon bat bahitu dute, tartean droga-kontuak dabiltzala. Bere burua babesteko edo, gaizkileen taldeko batek abokatu bati azaldu dizkio bahiketaren xehetasunak: non daukaten gizona, zein diren arrazoiak, zer egiteko asmoa duten... Poliziak jakin du honen guztiaren berri, baina abokatuak ez du argibiderik eman nahi izan, sekretu profesionalari men eginez.

C KASUA

Modelo ezagun batek, ustez, kirurgia estetikoko hainbat ebakuntza egin zituen. Berak dena ukatu arren, mediku batek hainbat komunikabidetara haizatu du kontua. Medikuek hainbat proba erakutsi zituen eta "miss" lehiaketa bateko antolatzaileek nahikotzat jo zituzten modeloari "titulua" kendu eta kalte-ordainak eskatzeko. Modeloak dio informazio hori egia balitz ere, medikuak isilpean gorde behar zuela; medikuak dio modeloa iruzur egiten ari zela eta berak ezin zuela hori jakinaren gainean onartu. Gaia auzitegietan omen dago.

2

Aitortza

Atazaurrea: nor bere iritzia eman ikusitakoaren gainean (15')

¹ Aitortza eta lanbideko sekretua, (DB 3128), Euskadi Irradta, Goizean behin, 2002.

- Ikasleei elizako aitortza bat irudikatzen duen bideo-pasarte bat² jarriko diegu (DVD 15.1.), arretaz entzun eta erabakitzeke zeren errua aitortzen duen eta zer leporatzen dion apaizak.

Ataza: aditu baten azalpena entzun eta legeak gaiaren inguruan dioena laburtu (25')

- Ikasleak hiru taldetan banatuko dira, eta talde bakoitzari jarraian dauden fitxetako bat esleituko zaie. Irratsaioa³ (CDaren 17. pista) entzun bitartean, egokitu zaizkien galderari erantzun beharko diete.

Ikaslearen liburua		
A TALDEA	B TALDEA	C TALDEA
Zein alde dago sekretu profesionala eta sigiloaren artean? Zein gairen inguruko auzietan behartu ditzake epaileak erlijio-gizonak dakitenaren berri ematera?	Zein erlijiosok dute sekretu profesionala eta sigiloa onartua? Zein kasutan egingo diote uko eliz gizonak dakitena kontatzeari?	Zein erlijiotako ministrok dute aitortua sekretua? Zein dira eliz gizonen aurka aurreikusitako zigorrak? Zein kasutan zigortuko dituzte?

- Entzun ondoren, taldekideek adostu egin beharko dituzte erantzunak. Zalantzarik izanez gero, transkripzioa baliatzeko aukera eskainiko die irakasleak.

Feedbackca: talde osoaren aurrean galderari erantzun (15')

- Talde bakoitzak dagozkion galderen erantzuna aurkeztuko die ikaskideei.

3

Zenbateraino gorde?

Atazaurrea: kasu zehatz bati buruzko albisteak irakurri eta iritzia eman (15')

- Liburuko albiste zatiak irakurri eta ulertu behar dituzte ikasleek.

Ikaslearen liburua
<p>Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak bigarren ezetsi du Zumarragako Salbatzailearen parrokiako apaizak egindako eskaria, bi gutxitu psikikori egindako sexu-gehiegikeria direla eta, bost lagunengatik aurkako epailetan lekuko modura ez deklaratzeko. Maiatzean ere apaizak eskatu zuen ez deklaratu behar izatea, argudiatuz gertakariak ezagutu zituela bere apaiz eginkizuna betetzen ari zela, eta horrek deklaratu behar izatetik salbuetsi egiten zuela.</p> <p>Hala ere, Auzitegiko bigarren sekzioak uztaillaren 5ean egindako autoan ezetsi egiten du apaizaren eskaria, argudiatuz ez duela gorde beharreko inolako sekreturik, izan ere, ustezko biktimak kasuaren instrukzio garaian adierazi zuen apaizari kontatu ziona.</p> <p>Autoak dioena dioela, apaizak berretsi egin zuen bere eskaria, eta biktimetako baten amaren idatzia erantsi zion. Agiri horretan amak aditzera ematen du ados dagoela apaizak ez deklaratzearekin. Hala ere, Auzitegiaren auto berriak berretsi egiten du aurrekoan esandakoa, eta apaizak deklaratu egin beharko du.</p>
<p>Ahozko bista aste osoan luzatu da. Ikusmin handieneko eguna, asteazkena izan zen, egun horretan deklaratu baitzuen lekuko gisara herriko apaizak, berari esan baitzion ustezko biktimak</p>

² Aitortza, (DB 3255), Euskal Telebista, Goenkale, 2002.

³ Aitortza eta lanbideko sekretua, (DB 3128), Euskadi Irratia, Goizean behin, 2002.

elkarrizketa pribatuan, ez aitortzan, sexu-gehiegikeriak jasan zituela auzipetuen aldetik.

Epaiketa bera apaizaren salaketari esker jarri zen abian. Epaiketan adierazi zuenez adin txikikoak adierazi zion sexu-gehiegikeriak jasan zituela. Hala ere, apaizak uko egin zion mutikoak adierazitakoarekin zerikusia zuten galderei erantzuteari, argudiatuz galdera horiei erantzutea bateraezina zela bere apaiz eginkizunekin.

Jarrera horren aurrean, epaileak 150 euroko isuna ezarri zion eta agindu zuen guardiako epaitegiari jakinaraztea erantzuteari uko egin ziola, argi dezan agintaritzari desobeditzeko delitu larrian erori den ala ez. Horrela balitz, urtebetera arteko kartzela-zigorra jaso lezake.

- Binaka jarrita, beraien iritzia landuko dute, liburuko galderen laguntzaz:

Ikaslearen liburua

- ✓ Legeak dioena kontuan hartuta, apaiz horrek isilpean gorde beharko du esandakoa? Behartuta egongo da dakiena kontatzera?
- ✓ Kasuaren berezitasunak kontuan izanda, ontzat hartzekoa da kasuari buruz zehaztasunak ezagutzen dituen bakarra isilik geratzea? Nolako erabakia hartuko zenukete bere kasuan?

Ataza: aditu baten azalpena entzun eta beste ogibide batzuetarako irizpideak proposatu (30')

- Arestiko gertakaria dela-eta irratsaio⁴ batean egindako gogoeta entzun eta ulertu behar dute (**CDaren 18. pista**), eta erabaki zein neurritan bat datorren eurek lehen egindako gogoetarekin. Taldeka jarrita, eztabaidatu egingo dute eskainitako puntuen inguruan:

Ikaslearen liburua

- ✓ Adituak emandako argudioak abokatu eta prokuradoreentzat ere erabil litekeela uste duzue?
- ✓ Eta familiako gertuko ahaideen kasuan? Zergatik?
- ✓ Kazetariei dagokienez, zigor-kodeak ez omen du garatu sekretu profesionalaren gaia. Zein irizpide iruditzen zaizkizue zentzuzko profesio horren kasuan? Zergatik?

- Taldeetan egindako gogoetaren laburpena liburuan duten irizpide-zerrendan jaso behar dute.

Ikaslearen liburua

Zenbateraino gorde?

- Abokatuek, ofizioz ari direnean, kontzientzia-eragozpena egiteko eskubidea baliatzeko aukera izan beharko lukete.

-
-
-

Feedbacka: ikaskideen ondorioak aztertu eta iritzia eman (15')

- Ikasleek beren laburpenak trukatu egingo dituzte. Taldean irakurri eta aztertu egingo dituzte; azkenik, jasotakoaren inguruan eratu duten iritzia berri emango diote elkarri.

⁴ Aitortza sekretua; bai ala ez?,(DB 3012), Euskadi Irratia, Lauretán Babel, 2002.

TRANSKRIPZIOAK

DVD 15.1.⁵

Iraupena: 0' 00''

Don Luis: Besterik, Eusebio?

Eusebio: Bai, hara, bederatzi urterekin sagar batzuk lapurtu egin nituen ondoko baserrian.

Don Luis: Ene, Eusebio! Baina horiek aspaldiko kontuak dira.

Eusebio: Bai, baina nire lehengusu Pedro Mariri bota zioten errua, eta... ez nuen egia aitortu.

Don Luis: Hara, bekatu hori iraungita dago dagoeneko. Ego te absolvo

Eusebio: Nire lehengusu gaixoa zigortu egin zuten, igande oso bat kalera atera gabe eta...

Don Luis: Nahikoa da, Eusebio! Nahikoa da!

Eusebio: Eta Pedro Mari gaixoa niri barkatu gabe hil zen.

Don Luis: Ordubete daramazu aitor-lekuan eta jendea zain dago hor kanpoan!

Eusebio: Nik bakean geratu nahi dut, Don Luis.

Don Luis: Nik ere bai, Eusebio, baina ez al duzu ulertzen bekatu larri bat duen norbait egon dagoela hor zain eta zera... gehiago ez itxarroteagatik elizatik aterata eta auto batek harrapa dezakeela eta bekatuan hil zure erruz?

Eusebio: Bai, eta aitortu nahi dizut oso berekoia naizela eta lagun-hurkoa ez dut aintzat hartzen.

Don Luis: Ondo da! ego te absolvo

Eusebio: Aizu, Don Luis, oraintxe akordatu naiz joan den udan zera...

Don Luis: Ixo, demontre! Nahikoa da!

CDaren 16. pista⁶

Iraupena: 2' 15''

Esataria: Galdera eta zehaztasun asko dago gai honen inguruan, izan ere, ez da gauza bera zuzenbide zibila, edo eta kanonikoa, eta diferentea da baita ere, apaizari kontatutakoa, aitortzaren sakramentua tartean egon bai ala ez. Baina ezer aurretik, arau nagusia, lege nagusia, gerora salbuespen asko dituen, baina, oro har, bete beharrekoa: Edozein pertsona epaiketa batean lekukoa bada epaileak egindako galdera guztiak erantzun behar ditu, ala esan digu Augusto Maeso, Donostiako Lurralde Auzitegiko magistratuak.

Augusto: Konstituzioak esaten du, guztiok gaudela behartuta lekuko bezala deklaratzera, deklaratzeko behartuta gaudela, bai joan behar dugu lekukoak bezala deklaratzera, deklaratu behar dugu eta egia esan behar dugu, lekukoak deklaratu behar du eta egia esan behar du, bestela delitu bat egin dezake.

Esataria: Hortik aurrera salbuespenak, eta lehendabizikoa sekretu profesionala. Nori dagokio? Ba legeak jasotzen duenez, legegizon, mediku, eta apaizei bai, eta zergatia ulertzeko adibidea jarri digu epaileak.

Augusto: Pertsona bat abokatu batengana joaten denean, ba, defendatzeko beharra daukanean, abokatuak hobeto defendatzeko, abokatuari kontatu behar dizkio bere intimitatearekin lotuta dauden zenbait elementu. Abokatu hori behartuta egongo balitz lekuko bezala kontatzeko bere bezeroak kontatu

⁵ *Aitortza*, (DB 3255), Euskal Telebista, Goenkale, 2002.

⁶ *Aitortza eta sekretu profesionala*, (DB 3128), Euskadi Irratia, Goizean behin, 2002.

diona, ba, orduan, bezeroak problema gehiago edukiko lituzke bere abokatuari behar den guztia kontatzeko. Orduan, hori da legeak babestu nahi duen zerbait eta esaten du abokatuak ez daudela behartuta lekuko bezala deklaratzeko bere bezeroak kontatu diona, prokuradoreri buruz gauza bera esaten da, medikuek ere ez dute kontatu behar beren pazienteak kontatzen diona eta baita ere legeak du posibilitate hau apaizei eta erlijiosoei.

Esataria: Eta kazetarien kasuan konstituzioak berez jasotzen du, sekretu profesionala baina momentuz ez dago eskubide hori kode penalean garatuta.

CDaren 17. pista⁷

Iraupena: 5' 42''

Esataria: Baina aurrekoari jarraituz, apaiz eta erlijiosoek beraz badute bai sekretu profesionala, baina ez pentsa kasu guztietan berdina denik, eta gaia bere orokortasunean hartu behar denik. Izan ere, bi ñabardura behintzat egin behar ditugu. Batetik, ez da gauza bera apaizen kasuan, sekretu profesionala eta sigiloa edo aitortza-sekretua, eta, bestetik, jurisdikzio zibilean eta penalean guztia ez da erabat berdina. Beraz, gatozen banan-banan aletzera, ezer baino lehen, apaizaren kasuan zer den sekretu profesionala. Juan Mari Etxeberria Donostiako Gotzaindegiko auzitegiko epailea da.

Juan M.: Sekretu profesionala da apaiz batek bere ministeritza lanean, apaiz lanean ari dela, jasotako, eta apaiz bezala jasotakoa. Adibidez, bat etortzen zaio parrokiako bulegora eta bere arazoak, bere barruko arazoak, bere gertakizunak edo besteak dakizkin gauza batzuk argitzen dizkio edo adibide jakitera ematen dizkio apaiz delako, eta apaiz bezala jotzen duelako.

Esataria: Eta hemen ere ñabardura bat: sekretu profesionala apaizek eta ordenatutako fraideek dute, ez, ordea, lekaime edo eta ordenatu-gabeek, baldin eta, noski, beste lanbide batean aritu eta lanbide horretatik ez badute behintzat; alegia, fraide eta abokatu izanda, abokatu izateagatik izango luke sekretu profesionala pertsona horrek, baina ez fraide izateagatik. Baina elizaren kasuan sekretu profesionalaz gain, sigiloa ere kontutan hartu behar da, hau da, aitortzan apaizari kontatzen zaiona.

Juan M.: Norbait bere bekatuen barkamena lortu nahirik, barkamen sakramentala, hau da, absoluzioa lortu nahirik, apaiz batengana joaten denean bekatua aitortuz, hortik jakiten duena sigilopean gelditzen da, eta sekretua oraindik esango nuke larriagoa dela eta sekretua hau haustearen ondorioak larriagoak dira, zuzenbide kanonikoan garbi agertzen denez.

Esataria: Horraino bata eta bestaren artean dauden diferentziak, baina bada oso kontutan hartu beharreko beste puntu bat. Hain zuzen ere, jurisdikzio zibilean eta penalean gauzak ez direla berdinak. Jurisdikzio zibilak, auzi zibilak jasotzen ditu dakizuenez, hau da, kontratu, oinordekotza eta horrelakoak, eta penalak, berriz, lapurreta, hilketa eta gainerakoak. Ba hau ere kontutan hartu behar da; izan ere, jurisdikzio zibilak argi ezberdintzen ditu, apaizen kasuan, sekretu profesionala eta sigiloa. Juan Mari Etxeberriak aipatu digu.

Juan M.: Kasu horretan sekretupean dagoen apaizak, sekretu profesionala duen apaiz batek, agertu behar dio, edo agertu diezaioke ze egoeratan dagoen epaileari eta arrazoitu, berak dituen arrazoiak eman sekretu hori gordetzeko. Baina azken batean tribunalak edo epaileak dira horri buruz

⁷ *Aitortza eta sekretu profesionala*, (DB 3128), Euskadi Irratia, Goizean Behin, 2002.

erabakiak hartzen dutenak jurisdikzio zibilean; hau da, epaileak esango dio apaizari: zuk deklaratu egin behar duzu, zuk agertu egin behar dituzu gauzak edo ez. Eta epaileek esaten baldin badiote adierazi egin behar dituela gauzak agertu egin behar dituela, nahiz eta bere ustez sekretu profesionalpean egon, ba kasu horretan agertu egin behar ditu eta kasu horretan apaizak, bere kontzientziari jarraituz esaten baldin badio epaileari: ba, hala eta guztiz ere, nik ez dizut erantzunik emango, kasu horretan ez-esankotasun delitua egiten du apaizak, delito de desobediencia, lehen zen hau delito de desacato. Sigiloari buruz zer? Sigilopean dakiena apaizak inoiz ere ezin du agertu, bekatuak aitortu dizkion pertsona horrek baimenik eman ez badio; orain, baimena emango balio bekatuaren aitortpena edo aitortza egin duen sujetu horrek, kasu horretan bai.

Esataria: Jurisdikzio penala, berrik, zehatzagoa eta, nolabait esateko, orokorragoa da esan ere sekretu profesionala duten eliz gizonak ez dute sekretu hori argitzerik eta urratzerik.

Juan M.: Sekretu profesionalak duen eliz gizon edo kultu-ministrorik ez dago deklaratzera behartzerik, ez eliza katolikoko apaiza bakarrik, baizik beste Espainiako estatuak itunak sinatu dituen beste erlijioetako eliz gizonak ere, horiek bere ministeritza egikaritzeagatik jaso dituzten berriak ematera behartzerik ez dago juizio edo auzi penaletan. Eta hemen esan du fiskalen batek ministeritza egikaritzekoan jasotako berriak, ministeritza egikaritzeak, kasu honetan lege hori zaharra denez, sigiloa esan nahi duela, baino hori ez da egia, zeren sigiloak suposatzen du penitentzi sakramentua, eta penitentzi sakramenturik ez dute mahometarrak, ez judutarrak, ez ere ebanjelista-protestanteak, eta horiekin Espainiako estatuak itunak egin ditu eta itun horiek garbi agertzen da eliz gizon horiek ere ez daudela behartuta jurisdikzio penalean egia agertzera edo galderei erantzutera.

Esataria: Gauzak honela, sekretua urratzeak edo behartuta izanda ere ez deklaratzek kasu batean zein bestean, zigorra dakarte, erlijiosoak ez direnen kasuan isuna eta baita kartzela zigorra ere kasuren batean, Augusto Maeso epaileak gogoratu digunez.

Augusto: Ba... isuna, isuna nire ustez isuna da jartzen den pena, eta baita ere zenbait kasutan baita ere izan daiteke presoaldi zigorra ere.

Esataria: Apaizen kasuan nolabaiteko zigorra bikoitza izango litzateke, aurrekoaz gain zuzenbide kanonikoak ere zigorrak aurreikusiak diru, sekretu profesionala edo sigiloa hausten duenarentzat.

CDaren 18. pista⁸

Iraupena: 5' 32''

Esataria: Jexux Mari Mujika, kaixo, arratsalde on!

Jexux M.: Arratsalde on!

Esataria: Eta Martin Auzmendi ere etorri da. Kaixo, Martin!

Martin: Arratsalde on, bai.

Esataria: Arratsalde on! Gaur, hasteko, apaiza batekin gertatu dena aipatu nahi dugu. Zumarragan bost lagunek sexu gehiegikeriak egin zizkieten bi gutxitu psikikoei. Apaizak bazuen guzti honen berri, gutxitutako batek konfesioan esan ziolako gertaturikoa. Epaia hasi denean, deklaratzera deitu dute, eta apaizak esan du ez duela ezer esango konfesioan esan ziotena sekretua delako. Gipuzkoako lurralde auzitegiak ez du ezezko hori onartu eta deklaratu egin behar duela berretsi du. Auzitegiak esan du jada

⁸ Aitortza sekretua; bai ala ez?, (DB 3012), Euskadi Irratia, Lauretan Babel, 2002.

ez dagoela sekreturik, biktimak epaileari esan ziolako apaizari konfesioan esan zion gauza ber-bera. Ikusiko dugu zer gertatzen den, astelehenean baita epaia, ikusiko dugu azkenean apaizak deklaratzera jotzen duen ala ez, baina guk gai hori jarri nahiko genuke gaurko tertulia abiatzeko. Non dago muga? Benetan apaiza batek ezetz esan al dezake horrelako kasu baten aurrean, konfesio-sekretuan babestuta kasu honetan? Nori egiten dio mesede? Nori kalte? Non dago muga?

Jexux M.: Apaizak —juezak badakite, ez badakite ere—, nire ustez, apaizak kasu honetan deklaratu egin beharko luke, eta esango dizut nire ustez zergatik. Begira, sekretua eta konfesio-sekretua ere, eta gauza hauek, sekretuaren balioa eta... hori izan dira oso-oso gauza inportanteak historian, jeneralean erabili behar izan direlako zibilak babesteko. Jeneralean, boteredunak, adibidez, elizan sartzerik ez zuten lekuan, momentu batean, boteredunak edozein lekutan sar zitekeen, edozer gauza egin zezaken, baina elizan ezin zitekeen sartu, nahiz eta elizan ezkutatu zeudenak momentu batean gaizkile bat izan. Gauza horiek izan dira benetan hasieran pentsatuak ba gauza bat sekretuz jakinez gero ahal dela gorde egin behar da, boterea duenari informazioa ez zaio gehiegi eman behar, erabil dezakeelako. Horiek berez babes-bide izan dira, momentu batean, eta gero gerta daiteke, forma bera, edo ohitura bera, pertsona baino inportanteago gertatzen denean, berez duten funtzioa bete ordez, guztiz kontrakoa betetzera iritsi daitezke momentu batean, eta orduan, nik uste dut printzipio bat eduki behar dela garbi, gizartean daude egia pribatuak eta egia publikoak. Hau nik Marinari jarraituta hartzen dut, baina esplikatuko nizueke pixka bat. Egia pribatuak dira niretzako... izugarri inportantea den egia da, baina nik zuri, adibidez, nire sinismen batean oinarritzen baldin bada, zuri inola transmititzerik ez daukadana, zuk sinisten ez baduzu, nik sinisten dudan jainkoan, zuretzat egia horrek ez du balio; horiek dira egia pribatuak. Izan daitezke izugarri inportantak, izugarri onuragarriak eta oso kolektiboak ere; pribatuak ez du esan nahi bakarrarena, kolektiboak. Baina beste egiak dira publikoak. Egia pribatuen bidez etorri dira publikoak pixkana, guk daukagun moralak adibidez fundamentalki sortu erlijioen bidez egin zen, alderdi txarrak ere bai, erlijioaren bidez. Gero momentu batean moral hori garatuz eta arrazoituz, iritsi gara egia publiko batzuetara. Egia publikoak dira, adibidez, denok onartu beharrekoak, denok elkarri konbentzitu arazteko modukoak, adibidez giza-eskubideak. Emakume batek gizonezko batek adina giza eskubidea du. Hori egia publiko bat da. Orduan, erlijio baten izenean, hau da, egia pribatu baten izenean ez daiteke egia publiko baten kontra joan, egia pribatua ez da inoiz egia publikoa baino inportanteagoa. Kasu honetan egia pribatua, kristau erlijioaren barruan apaizari kontatu zaiona, konfesioan kontatu zaiona, hori sekretuan geratzen da, egia pribatua izugarri inportantea izan dena, momentuan giza-eskubide baten kontra ezin du, psikiko batzuen kontra, giza-eskubide batzuen kontra, eta gizon horrek, horretan ari den pertsona jarraitu dezake, eta hori sekretuan badakit; sekretu hori orain momentu honetan egia publikoak inportanteagoa da egia pribatua baino. Horrek ez du esan nahi egia pribatua inportantea ez denik. Ez dakit esplikatuko naizen batere. Gero gehixeago saiatuko naiz.

Esataria. Alegia, zuk muga hortxe jartzen duzula egia pribatua eta egia publikoan artean dago zuretzat muga

Jexux M.: Giza-eskubide bat konfesio... norbaiten giza eskubide bat, denok onartutako giza-eskubide bat ez daiteke lesionatu, nik ebita ahal badezaket ebitatu egin behar dut, nahiz eta niri mingarria zaidan niretzat den egi pribatua den bat, kristauontzat, konfesioan esaten dena sekretua da, hori oso inportantea da eta oso ondo iruditzen zaidana mantentzea,

ezin bat etortzen denean, lehenagokoa da giza-eskubide hori, nire egia pribatua baino. Gero jendeak ñabardura guzti horiek utzi eta apaiz batek konfesioan dakiena esan behar al du?

Esataria: Esate baterako, oraingoan giza-eskubideen urraketa baten inguruan ari gara...

Jexux M.: Imajina ezazu

Esataria: Hilketa baten berri baldin badu apaizak konfesioan

Jexux M.: Eta hiltzailearen berri, hiltzaileak esana baldin badaki edo

Esataria: Hori da,

Jexux M.: hiltzailearen edo bestetan beste bat hiltzeko arriskua gutxiago izaten da, baina apaiz batek badaki, pertsona bat kristau da, baina badu arazoren bat barruan eta bortxatzailea izateko joera bat du eta joan eta bortxatzaileak kontzientzi txarra dauka eta apaizari esaten dio, apaizak ahalegin guztiak egin behar du berriro horrelakorik egin ez dezan. Berriro egiteko arriskurik ikusten baldin badu eta hori egiteko era bakarra da pertsona hori barrura sartu behar du eta ezta?, apaizak horretan lagundu egin behar du, zeren gizon horrek edo emakumea, berdina da,

Esataria: Hitz egin behar du

Jexux M.: Beste baten giza-eskubide oinarri, oinarrizko bat lesionatu dezake; orduan, printzipio horietan apaizak esan dezake, nik ez dut zerbait egingo, niretzako, nire egi pribatua, sekretua gordetzea, jendea hiltzea edo edozer gauza gertatzea baino inportanteagoa dela, eta hori gezurra da. Nire ustez konfesio sekretua eta gauza guzti horiek sortu ziren hain zuzen, alderantzizkoa sortzeko eta kristau ikuspuntutik batez ere, legea, askoz ere inportanteagoa da pertsona; hori ebanjelioan jartzen dute.

Esataria. Esate-batera e?

Martin: Baina bera ere da nahiko lekuko, ez da hain lekuko...

Jexux M.: Berezia

Martin: Lekuko nahiko berezia da, zeren kontatu diotena adierazi du, ezta?

Jexux M.: Berak lekukotasunaren garrantzia hartzen du, hain zuzen, apaiza delako, ematen zaio halako balioa eta konfesioari ere, zera gure juezak inportantzi berezi bat ematen diolako, baina ez lioke eman behar. Estatu laiko baten konfesioa, da kristauak daukaten sakramentu bat, ez da besterik. Hura etorri da esanaz, honek esan dit eta ama etortzen da esanaz apaizak esan dit.